

Iritziaren dinamika

Euskaldunon Egunkaria, 1995-01-31: 2.

Iritziak, egiaren alderdi bat erakusten edo sostengatzen du bereziki, baina zeharkakoak eta kontrakoak ere diren defentsak isladatzen ditu batzutan; hala, interesatua den zentzu honekin argudio bera erabili daiteke alderantzizko ondorioa ateratzeko. Oraintxe bizi dugun ingurumen batek erakusten digu nola: Gregorio Ordoñez gaztearen hilketak asaldatu du herri iritzia; bai Euskal Herrikoa, bertoko semea bertan hil dutelako, eta Espainiakoa ere, bereziki hilak hemen Espainiaren interes politikoak defendatzen zituelako. Nagusiki kontuan eduki behar dira: 1) Gure herriaren gehiengo handiak esan duela, hitzez edo isiltasunean egindako manifestaldietan, krimen honen aurka dagoela, nahiz eta biktimaren ideia politikoen alde egon ez. Baina 2) Espainian euskaldunen gehiengoaren protestak Ordoñez jaunaren ideial espainolen alde jartzen dituzte balantzan, egiatan gertatzen ez den moduan. Fenomeno honen adierazpide argia, Setien gotzai jaunaren aipatuko dugu; honek Sukia kardenalak emandako mezan esan zuen; ETAk! defendatzen omen duen herriari egin diezaioken zerbitzurik onena armak uztea da; horrela, herri honek duen helburu eta desio handiena, bakea, hain zuzen, lortzeko bidea irekiko da". Apaiz eta gotzain den euskalduna ezin da indarkeriaren aurka firmekiago mintzo; halere espainolentzat ez da nahiko izan, beraiek pentsa eta esan dituztenak esan beharko lituzke Setienek. Bakoitzaren herritasuna da, ordea, hemen berez adierazten dena.